

ARAU-PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK PROPOSATUTAKOA, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZU TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZAREN INGURUAN

EH BILDU udal taldeak araua honela aldatzea proposatzen du, zerga-progresibitateko irizpideak txertatzeko, 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 9. artikuluan jasotakoaren arabera, eta honako hobari hau gehitzen du:

“9. artikulua – Hobariak” atalean, 3. puntu hau gehitu behar da:

3.- Etxebizitzetako hondakinen bilketa modalitatean, honako hobari hauek eskatu ahal izango dituzte subjektu pasiboek, baldin eta bizikidetza-unitateak ez baditu gainditzen urteko diru-sarreraren muga hauek:

Bizikidetza-unitatea	Hobaria		
	% 75	% 55	% 35
1	<17.460	17.460 - 19.840	19.841 – 23.810
2	<22.860	22.860 - 25.870	25.871 – 31.110
3	<24.920	24.920 – 28.410	28.411 – 34.130
4 edo gehiago	<26.830	26.830 – 30.640	30.641 – 36.670

Hobari horren onuradun izateko, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiek etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute eskaera aurkeztu aurretik.

Bizikidetza-unitateztat hartuko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikuluan araututakoa.

Urteko diru-sarreratzat hartuko da bizikidetza-unitateko kide guztien PFEZaren aitortpenaren zerga-oinarria, baldin eta aurkezteko epean badago, edo aurkeztutako azken PFEZ aitortpena, aitortpen hori egiteko epea irekita ez badago. PFEZaren aitortpena aurkeztu ez badute, aurreko urteko etekin gordinak hartuko dira kontuan (nominak, ondare-sarrerak...). Lan-bizitzaren dokumentua ere aurkeztu beharko da.

Hobari horretaz baliatzeko, ordenantzan ezarritako konpentsazio-kuotaren zuzenketaren onuradun ere izan beharko du subjektu pasiboak, bai konpostatze-sistema edukitzeagatik edo biohondakin-educiontzia erabiltzeagatik.

Hobariaz baliatzeko, Udalak aldeztu aurretik onartu beharko du hori, eta ebazpena ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Aldizkako likidazioen kasuan, hurrengo aldi osotik aurrera izango ditu ondorioak.

Subjektu pasibo onuradunek nahitaez jakinarazi beharko dute hobaria jasotzeko baldintzetan eragina duen edozein aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridiko. Hala ere, Udalak urtero egiaztatu ahal izango du onuradunek horretarako baldintzak behar bezala betetzen dituztela.

Bere egoera aldatu delako, subjektu pasiboak hobaria jasotzeko onuradun izateari uzten badio, edo hari dagokion hobari-portzentajea aldatzen bada, ebazpenaren egunetik aurrera jarriko da indarrean egoera berria.

Donostian, 2025ko abuztuaren 7an.

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea